



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA
Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña



GGMEren

ARAUDIA

2008ko Apirila



AURKIBIDEA

1. Artikulua- Izena	2
2. Artikulua- Helburuak	2
3. Artikulua- Helbidea eta Iraupena	2
4. Artikulua- Zuzendaritza Organoak	2
5. Artikulua- Batzar Nagusia	2
6. Artikulua- Zuzendaritza Batzordea	3
7. Artikulua- Zuzendaria	4
8. Artikulua- Kideak	4
9. Artikulua- Sarrera, espezialitateak, titulazioak eta irakasleak.....	5
10. Artikulua- Kideen eskubideak eta betebeharrak	5
11. Artikulua- Diziplinazko erregimena	6
12. Artikulua- Finantzaketa eta aurrekontua	7
13. Artikulua- Memoria	8
14. Artikulua- Ikurra eta ezaugarria	8
Azken Xedapenak	9



1. Artikulua- Izena.

GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA (aurrerantzean GGME) GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOAREN (aurrerantzean GMF) erakunde tekniko eta pedagogikoa da, eta Araudi Tekniko honen, Euskadiko Goi Mendi Eskolaren (aurrerantzean EGME) Araudiaren eta GMFren Estatutuen arabera jokatu du; eta erabateko autonomia izango du programazioari, jarduerari, eraketari eta GGMEren barneko erabakiei dagokienez; GMFren babesean egongo da bai arlo juridikoan bai ekonomikoan.

2. Artikulua- Helburuak.

- 2.1 GGMEren helburua da mendi-kirola alderdi guztietatik hasi, zabaldu eta erakustea, eta mendiarekin zerikusia duten lan eta ikerketak sustatzea, historia, zientzia nahiz heziketa aldetik egin diren lanak, hain zuzen ere.
GGMEk alde guztietatik heldu behar dio mendi-kirolari, era xumeenetik hasi eta konplexueneraino.
Era berean, erne egon behar du kirol honen hainbat ataletan ager daitezkeen zenbait joera berri antzemateko.
- 2.2 GGMEren helburu nagusia izango da lan pedagogiko guztia mendizaletasunaren ingurura zuzendu eta bideratzea, bai arlo etikoan bai teknikoan, eta kirol honen ikasketan sartuko dira alor eta urtaro guztietarako agertu diren metodo berriak eta aurrerapenak
- 2.3 Erakunde honen jardunak eragina du gizarte osoan eta bereziki Gipuzkoako kirol federatuan.

3. Artikulua- Helbidea eta Iraupena.

- 3.1 GMFk ezartzen du non izango den GGMEren egoitza. Beraz, balizko egoitza aldaketak GMFren beraren aldaketen baitan egongo dira.
- 3.2 GGME irauteko sortu da, eta GMFk hala nahi duenean desagertuko da.

4. Artikulua- Zuzendaritza Organoak.

Honako hauek dira zuzendaritza organoak:

- 1.- Gobernu organo bat, Batzar Nagusia izeneko.
- 2.- Administrazio organo bat, Zuzendaritza Batzordea deritzana.
- 3.- Ordezkaritza organo bat, zuzendariak beteko duena.

5. Artikulua- Batzar Nagusia.

- 5.1 Batzar Nagusia kide guztiek osatzen dute eta horien borondatea azaltzeko gunea da. Egingo dituzten bilerak ohikoak eta ezohikoak izango dira eta jarduneko kide direnek izango dute boto-eskubidea. GMFko lehendakariak edota Zuzendaritza Batzordeko kide batek ere parte hartu ahal izango dute bileran, eta hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko.
- 5.2 Batzar Nagusia ohiko eran elkartu beharko da urtean behin gutxienez, azken hiruhilekoan, zuzendariak deituta, eta hor onartu beharko dira bai GGMEren plangintza orokorra bai Zuzendaritza Batzordearen lana; honek, bestalde, GGMEren irizpideen arabera jokatu behar du eta honen menpe. Eta ezinbestean, ezohiko eran egingo da Biltzarra Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen badu.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- 5.3 Batzar Nagusiak honako kasuetan izango du erabakiak hartzeko gaitasuna:
- Zuzendaritza aukeratzean, bai eta haren ekintzen gaitzespenean ere.
 - GGMEren gestio irizpide orokorrak zehaztean.
 - Zuzendaritza Batzordeko kideei ikastaroetako zuzendariak proposatzeko orduan.
 - Araudietan aldaketak egiteko garaian, betiere beharrezko prozesua jarraituz.
- 5.4 Batzar Nagusietarako deialdiak, bai ohikoak bai ezohikoak, idatziz egin behar dira, bilera non, noiz eta zein ordutan izango den adieraziz, bai eta Gai Zerrenda ere. Deialdiaren eta Batzarraren artean gutxienez hamar eguneko tarte gorde behar da.
- 5.5 Batzar Nagusietan, ohiko zein ezohikoetan, zuzendaria izango da buru; lehen deialdian osatutzat emango da Batzarra jarduneko kideen erdia gehi bat badago, eta bigarren deialdian, 15 minutu geroago, daudenak daudela.
- Botoa duen edozein kidek eman ahal izango dio beste kide bati Batzar Nagusietan haren ordezkari parte hartu eta botoa emateko eskubidea; bakoitzak beste bakar baten ordezkari izango da soilik. Ordezkaritza idatziz adierazi behar da, eta bilera hasi aurretik idazkariari helaraziko zaio. GGMEk egoitza duen hiritik kanpo bizi diren kideek postaz bidali ahal izango dute ordezkariaren izena.
- 5.6 Batzar Nagusietan hartutako erabakiak botoen gehiengo soilaz hartuko dira.
- 5.7 Idazkariaren ardura izango da batzarren aktak idaztea, eta honako hauek jasoko ditu: data, lekua, batzarkideen izen-abizenak, eguneko aztergaiak eta erabakiak. Bere sinadura ere jasoko du, zuzendariaren oniritziarekin.

6. Artikulua- Zuzendaritza Batzordea.

6.1 Zuzendaritza Batzordea hauek osatuko dute:

- Zuzendaria
- Idazkariak.
- Sail bakoitzeko kide bana.

6.2 Zuzendaritza Batzordearen betebeharrak dira:

- GGMEren gestio orokorrak bideratzea, Batzar Nagusiaren aginduei jarraiki eta GMFren kontrolpean betiere.
- GGMEk burutu beharreko ekintzak antolatzea, irakasleen Formazio Plana ezarriz eta sail bakoitzeko ikastaroetako zuzendariak berretsiz, betiere Batzar Nagusiak proposatua gogoan.
- Batzar Nagusia urteko aurrekontuen gainean jakinaren gainean jartzea, bai eta aurreko urteko balantzearen jakinaren gainean ere.
- Urtean zehar gauzatu diren jardueren memoria egin araudi honetako 15.1 artikulua jasotzen duen bezala.
- Batzar Nagusietako Gai Zerrenda finkatzea eta ohiko zein ezohiko deialdiak zehaztea.
- Kideek idatziz helarazitako proposamen edo iradokizunak aintzat hartzea, eman beharreko erantzunak emanez.
- Batzar Nagusiari espresuki ez dagokion beste edozein gairi erantzutea.

6.3 Zuzendaritza Batzordea hilean behin elkartuko da gutxienez, eta nahi adina saio egin ahal izango ditu, bai zuzendariak eskatuta bai edozein kidek eskatuta. Zuzendaria izango da buru, eta hau ez badago, batzordekide zaharrena.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, daudenen gehiengoaren botoa behar da, baldin eta kideen erdia gehi bat badago bileran.

Idazkariaren ardura izango da batzarren aktak idaztea, eta honako hauek jasoko ditu: data, lekua, batzarkideen izen-abizenak, eguneko aztergaiak eta erabakiak. Bere sinadura ere jasoko du, zuzendariaren oniritziarekin. Aktak dagokien Liburuan gordeko dira.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- 6.4 Zuzendaria Batzar Nagusiak hautatuko du. Haren izendapena GMFren Zuzendaritza Batzordea berretsi beharko du. Agintaldia 4 urtekoa izango da, Batzar Nagusiaren edo GMFren Zuzendaritza Batzordearen ezeztatzerik ezean. Epegabeki hautatu ahal izango da.
- 6.5 Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak zuzendariak hautatuko ditu, bere agintaldiaren iraupen bererako, aurrez zuzendariak ezeztatzen ez baditu
- 6.6 Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, gutxienez urtebetez izan behar da GGMEko jarduneko kide, eta urtebeteko antzintasuna eduki beharko da.
- 6.7 Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasuotan utziko dute kargua:
- Agintaldia agortzen zaienean.
 - Dimisioa aurkezten dutenean.
 - GGMEko kide izateari uzten diotenean, edota gaitasun galera dutenean.
 - Zuzendariaren erabakia denean.
 - GGMEko Zuzendaria GMFko Zuzendaritza Batzordeak kendu ahal izango du kargutik; lehenago, ordea, Batzar Nagusiak berretsi behar izango du edo GGMEko gutxienez kideen herenak idatziz eskatu.
 - Heriotza edo ezintasuna gertatu denean.
 - Arau-hauste larria edo oso larria gertatu denean
- 6.8 Kargu uztea a) atala dela medio gertatu denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunearan jarraituko dute lehen Batzar Nagusia egin bitartean, orduan hautatuko baita zuzendari berria eta honek bere Zuzendaritza Batzordea.

7. Artikulua- Zuzendaria

- 7.1 Zuzendariak ordezkari izango du pertsona fisiko eta juridikoen aurrean, bai eta Erakunde eta Organo publiko eta pribatuaren aurrean ere, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak gauzatu ditu, eta honen buru izango da. Zuzendaria edo bere Zuzendaritza Batzordeko kide bat izango da GMFko Zuzendaritza Batzordeko kide, betiere GMFko Zuzendaritza Batzordeak ondo irizten badio.
- 7.2 Zuzendariaren esku egongo dira espresuki Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Nagusiaren esku ez dauden ahalmenak, eta bereziki honakoak:
- Zuzendaritza Batzorderako eta Batzar Nagusirako deialdia egitea eta saio horien aktari oniritza ematea, bietako eztabaidak gidatzea eta, botazioetan berdinketa egonez gero, kalitateko botoa erabiltzea.
 - Zuzendaritza Batzordeari GGMEren ekintzak proposatzea.
 - Araudia betetzeaz arduratzea, eta baita GMFko partaide izateagatik bete beharreko arauak betetzeaz ere.
 - Sortu daitezkeen arazo larriak erantzuna ematea, egiten den lehen bileran Zuzendaritza Batzordea jakinaren gainean jarri ondoren.
 - Lurraldeetako beste eskolekin harremanak izatea, bereziki EGMEekin.
 - Eskolaren diruaren erabilera egokiaz arduratzea.
 - Zuzendaritza Batzordearekin batera GGMEn sartzeko eskaerak eta berriro jarduneko kide izaera berreskuratzeko eskaerak onartzea.
- 7.3 GMFren Zuzendaritza Batzordearekin hitz egin ondoren, gaitasuna du zuzendariak bere ordezkari izateko Zuzendaritza Batzordeko beste kide baten edo batzuen esku uzteko.

8. Artikulua- Kideak.

- 8.1 GGME honako kide-mota hauek osatuko dute:
- Jarduneko kideak.
 - Ez jarduneko kideak.
 - Eszedentzian dauden kideak.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- 8.2 Jarduneko kide izango dira Araudi honen 12.2 C atalak dioena betetzen dutenak, hau da, mendi kirolaren irakaskuntzan dihardutenak.
Edo GGMEren barruan heziketa lanean edota administrazio lanetan dihardutenak.
Gainera, federatu txartela egunean dutenak.
- 8.3 Ez jarduneko kide izango dira, GGMEen edo EGMEen heziketa lanik egin ez edo urtebete baino gehiagoan ez kolaboratzeagatik edo arau-haustea dela-eta zigortuta egoteagatik, edo bi urte baino gehiago eszedentzian egoteagatik. Eskubideak galduko dituzte, baina ez kide izaera.
Ez jardunean dagoenak heziketara itzuli nahi badu, bere alorrean eguneratuta dagoela erakutsi beharko du.
- 8.4 Eszedentzian egongo dira, heziketan aritzeko hutsarte luze bat aurreikusita, eszedentzia eskatu zuten kideak; eskaera hori idatziz egin behar zaio Zuzendaritza Batzordeari. Eszedentzian ezingo da 2 urte baino gehiago egon, eta eszedentzian egoteak ez du ez jardunean egotea ekarriko.
Eszedentzian egon ondoren berriro sartu ahal izateko, eskaera egin behar zaio idatziz Zuzendaritza Batzordeari, gutxienez sartu baino hogeita hamar egun lehenago; dena den, birsartze hori eskatu duenak GGMEren jardura betetzeko duen egoera fisiko eta tekniko egokiek erabakiko dute.
- 8.5 Ez jardunean edo eszedentzian dauden kide guztiek GGMEk irakasle lanean aritzeko utzitako material dena itzuli egin beharko dute.

9. Artikulua- Sarrera, espezialitateak, titulazioak eta irakasleak.

- 9.1 Tituluak ematea EGMEren eta EMFren betebeharra da. Beraz, sarrera baldintza guztiak, espezialitate motak, titulazio motak eta irakasleen mailak EGMEren araudiak eta EMFren Estatutuek ezarritakoak izango dira.
- 9.2 Aurrekoaren harira, GGMEen sartzeko ondoko izapidea jarraituko da:
- Zuzendaritza Batzordeak kide izateko aurkeztu denaren historia aztertuko du eta GGMEko eta EGMEko kide izateko gaitasuna erabaki. Gaitasun honek ekarriko du espezialitateari dagozkion azterketa teoriko-praktikoak egitea, EGMEk izendatutako Azterketa Batzordeak ezarri eta baloratuko dituenak.
 - Azterketa amaituta, Azterketa Batzordeak erabakia hartuko du eta EGMEko Zuzendaritza Batzordeak berretsiko, eta orduan lortuko du dagokion agiria. Irakasle berria ez da GGMEko eta EGMEko irakasleen koadroan sartuko harik eta gutxienezko baldintzak bete eta GGMEren barruan bere espezialitateko ikastaro bat egin arte praktiketako izangai moduan.
 - Kategoria bakoitzean sartu edota igoera lortzeko azterketa teoriko-praktikoak EGMEk zehaztuko ditu, eta GGMEko kide guztien edo hor sartzeko eskaera egin duten guztien eskura egongo dira.

10. Artikulua- Kideen eskubideak eta betebeharrak.

- 10.1 Honakoak dira GGMEko jarduneko kide guztiek dituzten eskubideak:
- Araudi honen aurkako erabakiak eta jarduerak gaitzestea; horretarako berrogei egun naturaleko epea izango dute akordio edo jardura horien jakitun izan denetik hasita.
 - GGMEko beste kideen nortasuna ezagutzea, baita kontuen eta jardueraren gorabeherak jakitea ere.
 - Batzar Nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, eta baita eskubide hori GGMEko beste kideen esku uzteko ere.
 - Araudi honen esanetara, GGMEko zuzendaritza karguetan parte hartzea, bai botoa emanez bai hautagai izanez.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- e) GGMEko kideen fitxategian tokia izatea eta ikurra erabiltzea.
- f) Araudi honen ale bat edukitzea, eta zuzendaritzari eskariak eta kexak idatziz aurkeztea.
- g) Ekintza sozialetan parte hartzea eta erakundearen lokala, liburutegia eta abarrak erabiltzea, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako eran.
- h) Zigor-neurriak hartu aurretik entzuna izatea, eta zigorren zergatiak jakitea; zergati hauek GGMEko kide baten huts egiteetan izango beharko dute oinarri.
- i) GGMEko kide izateak ez du profesional maila ematen; hala ere, Zuzendaritza Batzordeak emandako dietak jasotzeko eskubidea izango du kideak, GGMEk antolatutako ikastaroetara joateko egiten dituen gastuak ordaintzeko.
- j) Etengabeko prestakuntza jasotzea.
- k) Norberaren akreditazioa izatea, EGMEk emandako urteko baliozkotzeekin.
- l) Eszedentzia hartzea araudi honetako 8.4 artikuluan jasotako baldintzetan.
- m) GGMEko eta EGMEko kide izaerari eragiten dion edozein kudeaketaren berri bakarka jasotzea.

10.2 Honakoak dira GGMEko kideen betebeharrak eta baldintzak jarduneko egoeran mantentzeko:

- a) GGMEren eta GMFren helburuak lortzeko lana egitea.
- b) Araudi hau eta GGMEko zuzendariak zuzen hartutako erabakiak onartu eta betetzea.
- c) Gutxienez espezialitateko ekintza bat burutzea urtean, heziketan aritzeko gaitasun nahikoa eta ahalmena gordetzeko, espezialitate bakoitzaren garapenak dakartzan teknika berrietara egokituz. Urtebetean ez bada gutxienez heziketa ekintza bat burutzen edo GGMErekin edo EGMErekin kolaborazio bat egiten arrazoirik eman gabe, Zuzendaritza Batzordeak hezkuntzatik egotziko du kide hori eta GGMEren ez jarduneko kide bihurtuko.
- d) Ikastaro bat emateko beharrezkoa izango da dagokion espezialitateko eguneratze ikastaroa egitea aurrez.
- e) Ikastaro bat zuzendu ahal izateko, aurrez espezialitateko bi ikastarotan parte hartu beharko da irakasle gisa.
- f) Batzar Nagusieran esku hartzea.
- g) Joateko asmoa erakutsi den ikastaroetara joatea.
Are gehiago, ikastaro bat emateko hitza eman duenak bere esku dagoen guztia jarri beharko du baldintza egokienetan emateko.
- h) Kide bakoitzak derrigorrean eguneratu behar du federazio lizentzia urtearen hasieran. Are gehiago, jarduneko kidearen kasuan, ezingo da heziketa lanik egin lizentzia egunean ez dagoen bitartean.
- i) GGMEren eta GMFren izen eta irudi onak merezi duten duintasunez eta errespetuz jardutea.
- j) Gainerako kide, ikasle, kirolari edo pertsonen ohorea, duintasuna eta intimitatea errespetatu, GGMEko eta GMFko kide izan edo ez,
- k) GGMEn eta GMFn bere kide izaerari buruz erabakitakoak onartu.

11. Artikulua- Diziplinazko erregimena.

Zuzendaritza Batzordeak kideak zigortu ditzake, hauek Araudi hau behin eta berriz hausten badute edo Batzar Nagusiaren edota Zuzendaritza Batzordearen erabakiak hausten badituzte. Zigorrik txikiena 15 egunez kide izateko eskubideak galtzea da, eta handiena, GGMEtik egotzia izatea.

Horretarako, zigorra mereziko luketen jokabideen gaineko ikerketa zabalduko du zuzendariak. Jarduerak idazkariak bideratuko ditu, eta Zuzendaritza Batzordeari proposatuko dio hartu beharreko erabakiak har ditzan. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak du, baina ezingo du zigorrik ezarri zigorra jaso dezakeenari entzun gabe.

Zigor-erabakiak hartzeko, Zuzendaritza Batzordea artikulua honetan jasotako diziplinazko erregimenean eta GMFren Estatutuetan oinarrituko da..

Erabaki motibatu horien aurka jo ahal izango da, Batzar Nagusira lehenik eta GMFren Zuzendaritza Batzordera azkenik.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- 11.1 GGMEren barnean, Zuzendaritza Batzordearen esku dago zigortzeko ahalmena. Garrantziaren arabera, hutsegiteak izango dira Oso Larriak, Larriak edota Arinak.
- 11.2 Hutsegite bat Oso Larria izango da:
- Hutsegite larriak etengabe egiten direnean.
 - GGMEren edota GMFren izen ona zikintzeko zerbait egin edo jendaurrean esaten denean.
 - GGMEren izenaren edo ikurraren erabilera okerra egiten denean.
 - Istripuetan laguntza behar duenari ukatu egiten zaionean.
 - Jasotako zigorrak betetzen ez direnean.
- 11.3 Hutsegite bat Larria izango da:
- Hutsegite arinak etengabe egiten direnean.
 - GGMEren barnean, mendian izan behar den segurtasunaren aurkako ekintzak egiten direnean.
 - Ikastaro batean, ikastaroko zuzendariaren agintea onartzen ez denean.
 - Aterpetxeei eta bertan dagoen materialari kalteak eragiten zaizkionean, bai eta beste instalazio eta inguruneari berari eragiten zaizkionean ere.
 - Edozein ekipamenduri nahita kaltea eragiten zaionean, nahiz materiala edo artifiziala izan, nahiz hezkuntzan erabiltzekoa izan. Era berean, GGMEren material didaktiko eta teknikoa alboratu edo gaizki erabiltzen denean.
 - GGMEko kide ez direnei honen akreditazioa edo ikurra eman edo uzten zaionean.
 - Bere espezialitatez kanpoko gaiak ematen direnean, harekin bat datozen salbu.
 - GGMEri kaltea edo desondra eragingo dion zerbait egin edo egiten ez denean; adibidez, irakasleak ikastaroak ematea ikastaro horiek GGMEren interesen edo ekintzen kalterako direnean (data berberetan izatea, ikastaro mota, erabilgarritasunik eza, etab.). Hemen ez dira sartzen euren lana dela-eta ezin duten edota beste jarduera batean dauden irakasleak.
- 11.4 Hutsegite arinak izango dira, larrien edo oso larrien artean egon gabe, GGMEren arau eta irizpideen aurka egiten diren jokabideak.
- Edonola ere, hutsegite Arinak izango dira:
- Lagun hurkoari jendaurrean errespetua galtzea, GGMEko kideari dagozkion zereginetan ari dela.
 - GGMEren ekintzetan etika ezaz aritzea.
 - Instalazio, aterpe edo ingurunea zikindu edo errespeturik gabe tratatzea.
- 11.5 Hutsegiteei dagozkien zigorrak honakoak izango dira:
- Hutsegite Arinak: kargu hartze-eskutitza; diru-laguntzen etena; 15 egunetik 6 hilabete arteko tartea ez jarduneko egoeran igarotzea.
 - Hutsegite Larriak: urtebete eta lau urte artean ez jarduneko egoeran egotea.
 - Hutsegite Oso Larriak: GGMEtik kanporatzea.
- 11.6 Hutsegite larriei dagozkien zigorrak GMFko Zuzendaritza Batzordeak berretsi beharko ditu, eta oso larriei dagozkienak, EGMEko Zuzendaritza Batzordeak.
- 11.7 Jarduneko egoerara nola itzuli:
- Hutsegite Arinagatik bada: zigorra betetzeko epea amaitu bezain laster, automatikoki.
 - Hutsegite Larria denean nahiz GGMErekin edo EGMErekin ez jarduneko kasuan, zuzendariari eskutitza igorri behar zaio urteko lizentziaren kopia barnean duela. Ondoren, eguneratze ikastaroan parte hartu beharko du, edo irakasle laguntzaile gisa, bere espezialitatean, heziketarako egunean dagoela ziurtatzeko.

12. Artikulua- Finantzaketa eta Aurrekontua.

- 12.1 GGMEk GMFren aurrekontuetan izango du finantzaketa.



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA

Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

- 12.2 Zuzendaritza Batzordeak GGMEren onurarako diren diru-laguntzak edo bestelako laguntzak eskatzeko gaitasuna du, baldin eta ez badu bere izen ona zikintzen, eta beti GMFren Zuzendaritza Batzordearen baieztokarekin.
Euren maila teknikoa eta pedagogikoa handitzeko, kide guztiek diru-laguntza jaso ahal izango dute GMFren eskutik, GGMEren Zuzendaritza Batzordearen bitartez.
- 12.3. Diru sarrerak antolatzen diren ikastaroetan parte hartzeko eskatuko diren kuotetatik etorriko dira.
- 12.4 Erakundeek edo partikularrek, publiko nahiz pribatuek, emandako diru-laguntzak Zuzendaritza Batzordeak bideratuko ditu.
- 12.5 Hezkuntzara esleitutako dirua ezingo da inola ere beste ezertan erabili.
- 12.6 Gauzatuko diren ekintza orokorren antolamendua ikusita, Zuzendaritza Batzordeak ahalmena izango du egokien irizten dion kirol-enpresekin beharrezkoa den materiala erosteko gestioak egin ditzan.
- 12.7 Ekintza orokorren antolamenduarekin batera, Zuzendaritza Batzordeak honako ataletan banatuko du aurrekontua:
- Egingo diren ikastaroak.
 - Baliabide pedagogikoak.
 - Eguneratze ekintzak.
 - Mendiko materiala.
 - Gastu orokorrak.

13. Artikulua- Memoria.

- 13.1 Urtearen amaieran, Zuzendaritza Batzordeak memoria egin beharko du, non agertuko diren urtean egindako ekintza guztiak, egindako ikastaroen xehetasunak, parte hartu duen ikasle kopurua eta irakasleak zehaztuz, praktikak, hitzaldiak, film emanaldiak non izan diren, laburpen ekonomikoa eta jakitea merezi duen beste hainbat datu.
- 13.2 Behin memoria eginda, Zuzendariak ale bat GMFri emango dio, eta beste bat EGMEko zuzendariari.

14. Artikulua- Ikurra eta ezaugarria.

- 14.1 GGMEk EGMEren ikurra erabiliko du, eta agiri, fitxa eta ofizialki argitalpen guztien goiburuan erabiliko du, izen osoa, Gipuzkoako Goi Mendi Eskola - Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña, bi hizkuntzetan idatzirik.
- 14.2 Kideek ikurraren kopia bat erabiliko dute, bakarria irakasle guztientzat, berdina da zein lan egiten duten edo zein maila duten.
- 14.3 Zuzendaritza Batzordeak, egoki baderitzo, irakasle guztiek, ezaugarri gisa, jantzi, forma eta kolore jakin batzuk erabiltzea proposa dezake. Dena dela, GGMEk bere jantzirik ez duen bitartean, EGMEk emandako jantziak erabiliko dituzte irakasleek.



AZKEN XEDAPENAK

LEHENA: Zuzendaritza Batzordea izango da Araudi honen interpretazio gune eta hutsuneak betetzeko arduradun, eta Batzar Nagusia biltzen den lehen aldian emango du jakitera eta onartzera.

BIGARRENA: Batzar Nagusiak onartu ondoren, GMFk berretsi beharko du balioa izan dezan. Halaber, ondorengo aldaketak Zuzendaritza Batzordeak proposa ditzake edota gutxienez kideen herenak, eta izapide eta onarpen berbera izango dute.

HIRUGARRENA: Araudi hau GMFk onartuz geroztik, indarrik gabe geratu dira aurreko araudi guztiak.

Araudi hau 2007ko azaroaren 29an onartu zuen GGMEren Batzar Nagusiak, eta GMFren Batzar Nagusiak berretsi zuen 2008ko apirilaren 10ean.

GGMEko zuzendaria

GMFko lehendakaria

Sin.: José Luis Conde Corral

Sin.: Juan Pedro Iturbe Bengoa



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA
Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña



GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLA
Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña

KIROL ETXEA * Anoeta Ib., 5 * 20014 DONOSTIA
Tel.: 943.461.440 * e-mail: goimendi@gmf-fgm.org